

Espainiako Audientzia Nazionalak hirugarren graduako progesioa ukatu dio Joseba Arregiri

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 06/12/2023

77 urte ditu euskal preso politikoak eta gaixorik egon arren 31 urte darama preso.

Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak onartu egin du Fiskaltzak Joseba Arregi Erostarbe hirugarren gradura igarotzearen aurka jarritako errekurtsua. Apirilean eman zion hirugarren gradua Lakuako Gobernuak, baina fiskaltzaren errekurtsuaren ondorioz espetxean mantenduko dute, bere adina eta zigorrari erreparatu gabe: 77 urte, horietatik 31 preso, 1992an Bidarten atxilotu zutenetik. Aipatzekoa da Arregik «adinetik eratorritako multipatologiak dituela», eta zigorraren hiru laurdenak 2019an bete zituela. Epailleak dio Arregik uko egin diola ETAk egindako gertaerak argitzen laguntzeari eta «uko egiten diola biktimei barkamena eskatzeari», horren ondorioz hirugarren gradurako progesioa ukatu dio. Arregik 2022ko urrian lortu zuen lehen aldiz hirugarren gradua, eta zortzi hilabete eman ahal izan zituen aske. Denbora hori igarota, gradu-progresio hori eten egin zitzaion automatikoki, Fiskaltzak errekurtsua aurkeztu ondoren, beste euskal preso politikoei gertatu zaien bezala. Bi hilabete geroago, bigarren kaleratzea lortu zuen, Martuteneko teknikariek eta langileek proposatuta, hala ere, Fiskaltzak errekurritu egin zuen erabaki hori eta horren ondorioz, berriz ere espetxeratu egin zuten automatikoki, Auzitegi Nazionalak errekurtsua onartu du orain eta bigarren gradura itzultzea berretsi du.

<https://eh.lahaine.org/espainiako-audientzia-nazionalak-hirugarren-graduak>